

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Eibarko Udaleko kontu-hartzailetzako administrari plaza betetzeko praktiketako funtzionario izendapena.

Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 4an kontu-hartzailetzako administrari plaza bat oposizio-lehiaketa bidez hornitzeko onartutako oinarri orokorrak eta espezifikoak 2024ko azaroaren 12an argitaratu ziren Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Merezimenduen balorazioa amaituta, azpian zehaztutako pertsona praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egin zion Kalifikazio-epaimahaiak Alkateari.

— Miren Arrate Esnal Erquicia andrea.

Proposatutako izangaiak deialdiaren oinarrietan ezartzen diren parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu du.

Hori guztia kontutan hartuta, 2026ko urtarrilaren 9an sinatutako alkatetza ebazpen bidez ebatzi da:

Lehenengoa. Miren Arrate Esnal Erquicia andrea izendatzea Eibarko Udaleko praktiketako funtzionario, honako plaza hau betetzeko:

— *Plaza:* Kontu-hartzailetzako administraria.
Azpitaldea: C1.

Bigarrena. Erabaki honek eragina izatea 2026ko urtarrilaren 12tik hasita.

Hirugarrena. Izendatutako funtzionarioak hiru hilabeteko praktikaldia gainditzea.

Laugarrena. Hautagaiaren probaldia ebaluatuko duen tutorea, kontuhartzaile lanpostua betetzen duen pertsona izango da.

Bosgarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Eibarko Udaleko web orrian argitaratzea.

Seigarrena. Langileari eta sindikatuei jakinaraztea.

Akordio honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian, iragarki hau jakinarazi edota argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epe barruan, bidezkotzat jo daitekeen beste edozein errekurtso jartzeko eragozpenik gabe.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke ebazpena eman duen organoaren aurrean, jakinarazi edota argitaratzen den unetik hilabeteko epean.

Eibar, 2026ko urtarrilaren 19a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea.
(329)

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Nombramiento de funcionaria en prácticas para ocupar una plaza de administrativo/a de intervención del Ayuntamiento de Eibar.

La Junta de Gobierno de 4 de noviembre de 2024 aprobó las bases generales y específicas para la provisión por concurso-oposición de una plaza de administrativo/a de Intervención, las cuales fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el 12 de noviembre de 2024.

Finalizada la valoración de méritos, el Tribunal Calificador eleva al Alcalde la propuesta de nombramiento como funcionaria en prácticas de la persona abajo indicada.

— Dña. Miren Arrate Esnal Erquicia.

La persona aspirante propuesta ha acreditado el cumplimiento de los requisitos de participación establecidos en las bases de la convocatoria.

En base a todo ello, por resolución de alcaldía de 9 de enero de 2026 se ha resuelto:

Primero. Nombrar a Dña. Miren Arrate Esnal Erquicia funcionaria en prácticas del Ayuntamiento de Eibar, para ocupar la siguiente plaza:

— *Plaza:* Administrativo/a de Intervención.
Subgrupo: C1.

Segundo. Que el presente acuerdo surta efectos desde 12 de enero de 2026.

Tercero. Que la persona funcionaria nombrada debe superar un periodo de prácticas de tres meses.

Cuarto. El tutor o tutora que evaluará el periodo de prueba de la candidata será la persona que ocupe el puesto de Interventor/a del Ayuntamiento.

Quinto. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento de Eibar.

Sexto. Notificar a la trabajadora y a los sindicatos.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo y pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que se estime procedente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra este acuerdo se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo ha dictado, en el plazo de un mes, que se contará desde el día siguiente al de su notificación y/o publicación.

Eibar, a 19 de enero de 2026.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo.
(329)